

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 44/2021 Foru ekretua, irailaren 14koa. Onestea Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 29ko 28/2021 Foru Dekretuan egindako akats materialaren zuzenketa

Gobernu Kontseiluak, 2021eko ekainaren 29an, 28/2021 Foru Dekretua onetsi zuen, zeinaren bidez aldatu baitzen Arabako autonomiarako eta mendekotasunari arreta emateko sistemaren prestazio ekonomikoak arautzen dituen Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 1eko 39/2014 Foru Dekretua.

Foru Dekretua ALHAOn argitaratu zen 2021eko uztailaren 9an, eta, ondoren, huts material bat aurkitu zen 39/2014 Foru Dekretuaren 8. artikulua aldatzen duen bigarren artikuluan.

Zehazki, bigarren atalean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen babes maila gehigarriari atxiki dakizkiokeen prestazioak zerrendatzean, jatorrizko testuan egiten ez ziren prestazioak zerrendatzen dira, eta, huts baten ondorioz, ez da sartzen familia barruan zaintzeko prestazio ekonomikoa.

Dauden txosten ekonomiko eta juridikoak ikusita, agerikoa da omisioa ez zela nahita egin, idazketa huts baten ondorioz baizik, eta huts hori zuzendu egin daiteke Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua arabera.

Aurreko guztia dela-eta, Arabako Gizarte Politiken Saileko diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Zuzentzea Gobernu Kontseiluaren ekainaren 29ko 28/2021 Foru Dekretuaren bigarren xedapena. Foru Dekretu horretan Arabako autonomiarako eta mendekotasunari arreta emateko sistemaren prestazio ekonomikoak arautzen dituen Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 1eko 39/2014 Foru Dekretua aldatzen da.

Bigarrena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 1eko 39/2014 Foru Dekretuaren 8. Artikulua. Dekretu horrek arautzen ditu autonomiaren aldeko eta mendekotasunari arreta eskaintzeko sistemako prestazio ekonomikoak Araban: mendekoak familia barruan zaintzeko eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonalaren prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa. Honela geratzen da artikulua hori:

"8. artikulua. Eskubidearen titularrak

1. Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoetarako edozeinen titular izan ahalko dira, oinarrizko babes mailan, I., II. edo III. graduako mendekotasun egoera aitortuta duten pertsonak, foru dekretu honetan eta foru dekretu honen 1. artikuluko 2. eta 3. idatz zatiek aipatzen dituzten arauetan prestazio ekonomiko horietarako bakoitza eskuratzeko ezarritako betekizun orokorrak eta berariazkoak betetzen badituzte.

2. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak laguntza pertsonalerako eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikorako ezarritako babes maila gehigarria eskuratu ahal izango dute, artikulua honetako 1. paragrafoan jasotakoa betetzeaz gain, beren mendekotasun egoera onartzeko lehen eskaera egin aurreko 3 urteetan Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta daudela eta bertan benetan bizi direla egiaztatzen dutenek. Babes maila osagarri hori jaso ahal izango dute, halaber, mendekotasuna aitortzen zaien egunaren ondoren 3 urte jarraian egiten dituztenak

Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta eta bertan egiaz bizitzen, hala eskatzen badute, foru dekretu honen I. eranskineko 17. inprimakia betez, eta hala frogatzen badiote Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari.

Aurrekoa gorabehera, arreta txandakatzen den kasuetan, babes maila osagarria jasotzeko, frogatu egin beharko da, gainera, mendekotasuna duen pertsonak Arabako Lurralde Historikoan duela benetako bizilekua urtean 8 hilabetez, gutxienez ere.

3. Babes maila gehigarriko prestazio ekonomikoak emateko eta ordaintzeko, ezinbestekoa izango da horretarako aurrekontu kreditu egoki eta nahikoa egotea”

Beste hau esan behar du:

“Bigarrena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 1eko 39/2014 Foru Dekretuaren 8. artikulua. Dekretu horrek arautzen ditu autonomiaren aldeko eta mendekotasunari arreta eskaintzeko sistemako prestazio ekonomikoak Araban: mendekoak familia barruan zaintzeko eta zaintzaile ez profesionaleri laguntzeko prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonalaren prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa. Honela geratzen da artikulua hori:

8. artikulua. Eskubidearen titularrak

1. Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoetariko edozeinen titular izan ahalko dira, oinarrizko babes mailan, I., II. edo III. graduako mendekotasun egoera aitortuta duten pertsonak, foru dekretu honetan eta foru dekretu honen 1. artikuluko 2. eta 3. idatz zatiek aipatzen dituzten arauetan prestazio ekonomiko horietariko bakoitza eskuratzeko ezarritako betekizun orokorrak eta berariazkoak betetzen badituzte.

2. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak mendekoak familia barruan zaintzeko, laguntza pertsonalerako eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikorako ezarritako babes maila gehigarria eskuratu ahal izango dute, artikulua honetako 1. paragrafoan jasotakoa betetzeaz gain, beren mendekotasun egoera onartzeko lehen eskaera egin aurreko 3 urteetan Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta daudela eta bertan benetan bizi direla egiaztatzen dutenek. Babes maila osagarri hori jaso ahal izango dute, halaber, mendekotasuna aitortzen zaien egunaren ondoren 3 urte jarraian egiten dituztenak Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta eta bertan egiaz bizitzen, hala eskatzen badute, foru dekretu honen I. eranskineko 17. inprimakia betez, eta hala frogatzen badiote Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari.

Aurrekoa gorabehera, arreta txandakatzen den kasuetan, babes maila osagarria jasotzeko, frogatu egin beharko da, gainera, mendekotasuna duen pertsonak Arabako Lurralde Historikoan duela benetako bizilekua urtean 8 hilabetez, gutxienez ere.

3. Babes maila gehigarriko prestazio ekonomikoak emateko eta ordaintzeko, ezinbestekoa izango da horretarako aurrekontu kreditu egoki eta nahikoa egotea”

Bigarrena. Dekretu hau ALHAOn argitaratuko da, eta 2021eko uztailaren 10era arteko atzeragina izango du.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

EMILIO GERMÁN SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ